



[Eusk/Cast] U18, manifestazioa: Kaleak Berreskuratu! / ¡Recuperemos las calles!

JARKI :: 11/07/2020

Es necesario organizarse y recuperar la calle dejando claro que Euskal Herria no aceptará que se normalice ninguna norma excepcional que ponga en riesgo sus derechos

[Euskara]

Covid-19aren ondorioz, Euskal Herria ataka larrian aurkitu da. Nola ez, beharginak izan dira gaitzaren aurrean lehen lerroan aurkitu direnak eta honi aurre egin behar izan diotenak. Bitartean, osasun sistemaren gaur egungo egoera penagarriaren erantzule diren kapitalisten presiopean, itxialdia egon arren, langileriak bere lanpostuetara joaten jarraitu behar izan du, burgesiaren irabaziei eutsi ahal izateko euren osasuna arriskuan jarritz.

Gobernu ezberdinak ezohiko egoera hau aprobetxatuz, beldurraren kulturen sakondu eta beste testuinguru batean onartezinak izango liratekeen errepresioa eta kontrol sozialerako neurriak normalizatzen ari dira. Bestalde, indar polizialak euren praktika zuritzeko baliatzen ari dira krisi egoera euren presentziaren eta ekintzen onarpena eskuratzeko. Bide horretan, masa hedabideek ere erabateko prestutasunez dihardute euren jabeen mesedetan.

Gauzak horrela, garai latzak datoz Euskal Herri Langilearentzat alor ekonomikoan, lan alorrean zein politika alorrean. Osasun krisiaren atzetik ekonomia krisia baitator eta gobernuak hartutako neurriek argi utzi baitute langileon osasuna edo beste ezer baino garrantzitsuagoa dela kapitalisten irabaziarik eustea, ondorioak langile klaseak pairatu behar izanik.

Egoera honen aurrean, Euskal Herri Langileak ezin du jarrera otzana aurkeztu. Beharrezkoa da antolatzea eta kalea berreskuratzea, argi utziz Euskal Herriak ez duela ezohiko araurik, ezta bere eskubide demokratikoak auzitan jartzen dituen legedirik onartuko eta, are gutxiago, normalizatzen utziko. Horregatik, mobilizaziora dei egiten dugu, manifestazioa eskubide demokratiko honen gauzapena baitugu.

Lehen fitxa erori da eta Euskal Herri Langilearen aktibazioaren bidez bakarrik lortuko dugu egoera iraultzea eta krisiaren ondorioak berau eragin dutenek ordaintzea.

[Castellano]

Euskal Herria se ha encontrado en una grave situación a causa del Covid-19. Como no, han sido los trabajadores los que se han encontrado en la primera línea de defensa ante la enfermedad y los que le han tenido que hacer frente. Mientras tanto, presionados por los capitalistas, que son precisamente los responsables del lamentable estado del sistema de salud, los trabajadores han tenido que seguir yendo a trabajar aún a riesgo de su salud, para poder mantener las ganancias de la burguesía.

Los distintos gobiernos han aprovechado esta situación excepcional para ahondar en la cultura del miedo y poner en marcha medidas encaminadas a la represión y el control social, que les sería imposible aplicar en cualquier otro contexto. Por otro lado, las fuerzas policiales se están valiendo de la situación de crisis actual para blanquear sus prácticas y así conseguir normalizar su presencia y actividad. De la misma manera, los medios de comunicación de masas están trabajando con absoluta predisposición en favor de sus amos.

Se avecinan tiempos negros para el Pueblo Trabajador Vasco tanto en el ámbito económico, laboral y político. La crisis sanitaria vendrá acompañada de una crisis económica y las medidas adoptadas por los gobiernos han dejado al descubierto que están dispuestos a anteponer la salud o cualquier necesidad de los trabajadores, dejándolos a merced de las consecuencias, con tal de mantener los beneficios de los capitalistas.

Ante esta situación, el Pueblo Trabajador Vasco no puede mantener una actitud sumisa. Es necesario organizarse y recuperar la calle, dejando claro que Euskal Herria no aceptará, ni tolerará, que se normalice ninguna norma excepcional ni ninguna ley que ponga en riesgo sus derechos democráticos. Por eso, hacemos un llamamiento a la movilización, en la medida en que la manifestación es el ejercicio de este derecho democrático.

Ya ha caído la primera ficha y solo mediante la activación del Pueblo Trabajador Vasco conseguiremos revertir la situación y hacer que las consecuencias de la crisis las paguen aquellos que la han originado.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-u18-manifestazioa-kaleak>